

En la Casa Consistorial del M I Ayuntamiento de Auritz-Burguete siendo las 08,00 horas del día 19 de marzo de 2013, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres. Concejales/as, Dña M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán D. Juan Manuel Azanza Burusco, D. Alejandro Otegui Echeverría, D. Luis De Potestad Tellechea y D. Jesús Martínez Rico, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

### **1º.- APROBACION MOCION ACTUACIONES FORESTALES 2012-2013.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray, que informando de la anulación de previsiones de ayudas en relación con la convocatoria de ayudas a trabajos forestales de la campaña 2012-2013 comunicada por el Servicio de Conservación de la Biodiversidad al sobrepasar la disponibilidad presupuestaria de los años 2013 y 2014, informa a su vez de la reunión que tuvo lugar en Berriozar, reunión a la que acudieron alcaldes, representantes de entidades locales, empresas dedicadas al sector y asesores forestales. En dicha reunión se creó una comisión de la que forman parte entre otros, el alcalde del Valle de Erro, Enrique Garralda y Daniel Irigoyen representante de la Junta de Aezkoa, y que ha estado trabajando a fondo este tema ya que no solo a corto plazo si no a largo dejar de invertir en nuestros montes tendrá sus efectos a futuro. La comisión ha elaborado una moción que ha remitido a todos las entidades locales para su aprobación con el fin de que el Gobierno de Navarra mantenga la partida presupuestaria que sustenta la mencionada convocatoria.

Dicho lo anterior, el alcalde Sr. Irigaray propone aprobar la moción elaborada por la comisión forestal y que se traslada a continuación:

El Ayuntamiento de Auritz-Burguete, acuerda solicitar lo siguiente:

1. Que el Departamento de Administración Local, Medio Ambiente y Desarrollo Rural revoque o anule la resolución, acuerdo o decisión por el que se deja en suspenso la convocatoria de "Ayudas a Trabajos forestales de entidades locales y particulares campaña 2013-2014", de modo que la convocatoria siga abierta, y los entes locales y particulares puedan seguir con los trabajos silvícolas previstos.
2. Del mismo modo, se revoque el acuerdo, resolución o decisión por la cual dejan sin partida presupuestaria a más del 50% de los expedientes de la campaña 2012-2013, aún con trabajos iniciados.
3. Que se dote al Departamento de Administración Local, Medio Ambiente y Desarrollo Rural o a la sección correspondiente, de partida presupuestaria suficiente a las líneas mencionadas en los puntos 1 y 2 de esta moción para hacer frente a los expedientes de las campañas

2012-2013, 2013-2014 y los atrasos que viene arrastrando de campañas anteriores.

4. Que se garantice la continuidad de estas partidas presupuestarias con fondos suficientes hasta el periodo de vigencia de la futura P.A.C. recientemente aprobada y que abarca hasta el 2020.

5. Que se justifique y estudie la evolución que han tenido las dotaciones presupuestarias en el resto de iniciativas mencionadas en la exposición inicial (ordenaciones de montes comunales, inversiones directas en el medio forestal, mejoras en infraestructuras ganaderas, mantenimiento de cauces...) y revertir la misma en base a lo anteriormente mencionado.

6. Que se otorgue a representantes legitimados de los principales actores, la posibilidad de intervenir en los procesos de toma de decisiones y la capacidad para participar de manera directa en la conformación de las estrategias sectoriales, siendo convenientemente informados ante decisiones de calado como la suspensión de líneas estratégicas de financiación.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la moción anteriormente expuesta en todos sus términos, remitiéndola a CONFORNAF para su conocimiento y efectos oportunos.

## **2º.- PROPUESTA MODIFICACION LEY FORAL DE CAZA Y PESCA (GUARDERIO)**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de la reunión mantenida en Aribe en relación con la Ley Foral 17/2005 de Caza y Pesca, donde se explicó la obligación que se plantea de hacer efectivo lo que dice la Ley en relación con la vigilancia de los acotados y por tanto la imposición a los cotos de contratar un guarderío. Entendiendo que la mencionada Ley Foral 17/2005, debe ser estudiada con más sosiego y rigor, bajo las premisas de conservación de los recursos cinegéticos, potenciación del aspecto social imperado en muchos de los acotados, protección de vehículos y personas en vías frecuentadas por animales salvajes, colaboración con agricultores y ganaderos para que no sufran las consecuencias negativas producidas por estos animales en sus explotaciones, obtención de recursos económicos que redunden en la mejora de las zonas rurales etc., y teniendo en cuenta la actual situación económica de las zonas rurales y de las personas en su modalidad de coto social, se propone requerir que se deje en suspenso la obligatoriedad de la contratación de un guarderío tal y como se exigen en la Ley Foral 17/2005 de Caza y Pesca.

La Corporación, estando de acuerdo con lo dicho y propuesto por el alcalde Sr. Irigaray acuerda por unanimidad, solicitar que se deje en suspenso la obligatoriedad de la contratación de un guarderío tal y como se exigen en la Ley Foral 17/2005 de Caza y Pesca.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 8,15 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2013ko martxoaren 19ko 8:00etan, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegui Echeverria, Luis De Potestad Tellechea eta Jesús Martínez Rico, alkatea, Jose Irigaray Gil, bilkuraburu izan zen eta idazkaria Marisol Escurra Irure.

#### **1.- 2012-2013 BASO JARDUEREN GAINEKO MOZIOAREN ONESPENA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Biodibertsitatearen Konserbaziorako Zerbitzuak jakinarazi duela 2012-2013 baso jardueretarako laguntzen deialdian aurreikusitakoa bertan behera gelditu dela, 2013 eta 2014 urteetako aurrekontuak gainditu direlako; hortaz gain jakinarazi du bilera egin zela Berriozarren eta bertan izan zirela alkateak, toki entitateetako ordezkariak, sektorean lanean ari diren enpresak eta baso-aholkulariak. Bilera horretan batzorde bat osatu zen eta horretan daude, besteak beste, Erroibarko alkatea, Enrique Garralda, eta Aezkoako Batzarre Nagusiko kidea, Daniel Irigoyen; batzordeak gaia landu du mendietan inbertsiorik ez egiteak epe motzera zein luzera ondorio kaltegarriak izango baitu. Batzordeak mozioa prestatu du eta toki entitate guztietara igorri du ones dadin, Nafarroako Gobernuak deialdia sostengatzen duen aurrekontu-saila mantentzen dezan. Horiek horrela, Irigarai jk., alkateak proposatu du baso-batzordeak prestatu duen mozioa onartzea; hona hemen:

Aurizko Udalak erabaki du honakoa eskatzea:

1. Toki Administrazioako, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentuak indargabetu edo ezaba dezala "Toki Entitateentzako eta Partikularrentzako Baso Lanetarako Laguntza. 2013-2014 Kanpaina" deialdia bertan behera utzi duen ebazpen, akordio edo erabakia, deialdiak zabalik jarrai dezan, eta tokiko entitateek eta partikularrek basogintza-lan aurreikusiak egiten segi dezaten.
2. Era berean, indargabetu dadila 2012-2013 kanpainako espedienteen erdiak baino gehiago kontusailik gabe utzi dituen akordio, ebazpen edo erabakia, lanak hasita egonik ere.
3. Behar hainbateko kontusailaz horni dadila Toki Administrazioako, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentua edo kasuko atala, mozio honetako 1. eta 2. puntuetan aipatutako ildoekin bat, 2012-2013

eta 2013-2014 kanpainetako espedienteei eta aitzineko kanpainetatik heldu diren atzerapenei aurre egiteko.

4. Berma dadila aurrekontuen kontusail horien jarraipena, behar hainbateko dirutzaz horniturik, etorkizuneko PAC edo Europar Batasunaren Nekazaritza Politika indarrean dagoen bitartean. Azken PAC hori berrikitan onetsi da eta 2020ra bitarteko indarraldia izanen du.

5. Zuritu eta aztertu dadila zer bilakaera izan duten aurrekontuetako gainerako dotazioek hasierako azalpenean aipatutako beste ekimenetan (herri mendien antolamenduak, zuzeneko inbertsioak baso-ingurunean, abeltzaintza-azpiegiturak hobetzea, erreka-ibilguak mantentzea...) eta bilakaera horri buelta ematea, arestian azaldu duguna oinarri harturik.

6. Eman dakiela eragile nagusietako ordezkari zilegituei erabakiak hartzeko prozesuetan esku hartzeko aukera, bai eta sektoreetako estrategien osaketan zuzenean parte hartzeko ahalmena ere. Halaber, behar bezalako informazioa eman dakiela, munta handiko erabakiak hartzen direnean; finantzaketarako ildo estrategikoak bertan behera uzten direnean, adibidez.

Udalbatzak erabaki du aho batez aurkeztutako mozioa onartzea bere osotasunean eta CONFORNAFera bidaltzea behar diren ondorioak izan ditzan.

## **2.- EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO FORU LEGEAREN ALDAKETA PROPOSAMENA (EHIZAZAINAK)**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Ariben izandako bileran Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legearen inguruan aritu zirela, Lege horrek behartzen baitu barrutiak zaintzera eta horretarako ehizazainak kontratatzea. Bere ustez 17/2005 Foru Legea modu lasaiagoan eta zehaztasunez aztertu behar da, honakoak kontuan hartuz: ehiza baliabideak kontserbatzea, barruti anitzetako izaera soziala sustatzea, basoetako animaliak gehien ibiltzen diren bideetan ibilgailuak eta pertsonak babesa izatea, baso-animaliek abeltzaintzako ustategietan kalterik sor ez dezaten abeltzainekin eta nekazariekin elkarlanean aritzea, landa eremuen hobekuntzan lagundu ahal duten baliabide ekonomikoak lortzea, eta abar, eta kontuan hartuz landa eskualdeetako egoera ekonomikoa eta baita ehiza barruti sozialean aritzen diren pertsonena ere, proposatu du Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeak ehizazainak kontratatzeke ezartzen duen betebeharra bertan behera gelditzea eskatzea.

Udalbatzak, alkateak esandakoarekin ados egonik, erabaki du aho batez Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeak ehizazainak

kontratatzeko ezartzen duen betebeharra bertan behera gelditzea eskatzea.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 8:15ean, eta horretaz guztietaz nik neuk fede eman dut.